



Nabalaldean izango da Portuko erregai-hornigailua. O. HITZA

Donibaneko erregai hornigailua, astelehenean martxan

Donibane » Nabalaldea ondoan dago eta Repsol enpresak kudeatuko du ontzientzako erregai hornigailua

A. ZABALETA

Pasaiaiko Portuak erregai hornigailua izango du astelehenean aurrera. Portuan dauden ontzi guztiak euren erregai-tangak bete ahal izango dituzte bertan. Horrela jakinarazi du Jaime Tejedorrek, San Pedroko Arrantzaleen Kofradiako presidentea.

Orain arte, Pasaiaiko ontziak gasoilez betetzeko, Bilbotik ekarri behar zuten erregaia. Astelehenean aurrera, ordea, Repsol enpresak kudeatuko du Nabalaldean egongo den hornigailua.

Garai batean, Pasaia bazituen hornigailu propioak. Ontziek Trintxerpen hartzen zuten ikatza, eta aldi berean, ontzi berezi bat zegoen beste ontzietan erregaia eramateko; Errenteria-Oreteretan zeuden Campsako deposituak erabiltzen zituzten Pasaiaiko Portuan zeuden ontziek.

Munduko portu guztiak dituzte horrelako erregai hornigailuak, eta orain, Pasaia, beste portu antzerak, bere erregai hornigailua izango du. «Egun, Pasaiaiko ontziek orduak eta orduak itxaron

behar dute erregaia lortzeko», azaldu du Jaime Tejedorrek, «eta azpiegitura hau beharrezkoa zen Pasaian dauden ontzientzat».

Berdelaren kanpaina hasi da

Bestalde, berdelaren arrantza zera aterako dira hurrengo egunetan Pasaiaiko ontzi asko. Joan den astean, 220 tona berdel lehorreratu zituzten Pasaiaiko Portuan.

Jaime Tejedorren ustez, egun, ez da errentagarria ontzientzako berdelaren arrantza: «Ontziak gero eta urrutiago joan behar dira berdel harrapatzera, eta horrek berdelaren salneurria garestitzen du».

Tejedorren ustez, arrantzak bizi duen krisia oso «larria» da, eta orain dela «urte asko» hasi zen. Dena den, gaur egungo krisi ekonomikoak «eragin handia» du arrantzan.

Berdelari beste irtenbide batzuk bilatzeko asmoz, Aztik, Hondarribiko Arrantzaleen Kofradiak eta La Bacaladera enpresak merkatu berri batzuk bilatu nahi dituzte berdelaren saltzeko. Besteak beste, berdelaren arrak saldu nahi dituzte Europako. Aldi berean, berdeleibuzko ikerketa eta berrikuntza jarriko dute martxan. Tejedorren ustez, «ona» izan daiteke beste irtenbide batzuk bilatzea baina «arrantzaleen lana duintasunez hartu behar du jendeak», esan du.

Elkarrizketa

JAVIER JACINTO » Konpositorea eta orkestra zuzendaria

«Itxaropentsua da egoera; talentudun gazteak daude»

Musika » Javier Jacinto Pasaian hasi zen txistua jotzen eta konposatzen. Munduan zehar ibili ondoren, musikak oraindik ez duela krisirik bizi uste du, eta garai onak datozela

NAGORE VEGA

Javier Jacinto (Pasaia, 1968) konpositorea eta orkestra zuzendaria da. Pasaian hasi zituen musika ikasketak eta egun nazioartean da ezaguna. *Preludio al amanecer* obra aurkeztu berri du. Pasatako proiektuei eta datozenei buruz hitz egin digu.

Nola hasi zinen musikaren munduan?

Zazpi urterekin hasi nintzen solfeo eta txistua ikasten Trintxerpen. Gehienetangertatu ohi den bezala, musikan hasi nintzen gurasoek hala erabaki zutelako. Baina, kasu honetan, nire etorkizuna markatu zuen erabakia izan zen. Trintxerpetik Donostiara joan nintzen ikastera eta ondoren etorri ziren Iruñea, Madril eta munduan zehar egindako hainbat ikastaro.

Txistua jotzen zenuen, beraz.

Txistuarekin hasi nintzen eta instrumentu hori eta bere mundua oso-oso gustuko ditut. Izan ere, instrumentu horretarako dagoen literatura guztia interpretatu nuen, interpretaziorako esperientzia handia hartu nuen, baina, horrez gain, konposatzen hasi nintzen txistuarekin. Mundu hori partitura berrien gose da, eta horrek partitura asko idazteko aukera eman zidan. Obra horiek, gainera, oso azkar estreinatu nituen.

Baina instrumentu gehiago ere jotzen dituzu, ezta?

Bai, pianoa eta violoncelloa. Musikari batentzako oso garrantzitsua da formazio edo hezkuntza instrumentala.

Oso gazte hasi al zinen konposatzen?

Bai, oso gazte. Uste dute 11 edo 12 urte nituela hasi nintzenean. Orduan, txistuarentzako pieza txikiak idazten nituen, baita pianoarekin jotzeko ere. Batek, gutxi gorabehera, ezagutzen duen eta barruan geratu zaion musika konposatzen du.

Zer da zuretzako konpositore izate?

Nire ogibidea izateaz gain, nire espresatzeko modua da. Gustuko dugun horretan lan egitea amesten dugu askok; nik, amets hori errealitate bihurtzeko zortea izan dut.

Orkestra zuzendaria ere bazara. Nola hasi zinen horretan?



OARSOALDEKO HITZA

Nire lehen urratsak Trintxerpen izan ziren. Zuzendari bezala egin nituen lehen kontzertuak Trintxerpen, Antxon, San Pedron... izan ziren. 18 urte nituenean, Pasaiaiko kontserbatorioko orkestra zuzentzeko aukera sortu zitzaidan. Ondoren, Madrilerako joan nintzen komposizio ikasketak bukatzera eta Orkestra Zuzendaritzan eman nuen izena. Biak atera nituen.

Nola uztartzen dituzu bi jardunak?

Musikaren bi ikuspegi kontrajarri dira, baina era berean, osagarriak dira. Ezingo nuke egun naizen konpositorea izan, zuzentzen izan dudana esperientzia musikala eta praktikoa izango ez banitu. Era berean, ez nintzateke izango naizen zuzendaria, komposizioak exigitzen duen ikasketarik eta hausnarketarik gabe.

Nolako da Javier Jacintoren egun bat?

1a denbora guztia konposatzen ematen dut. Horrez gain, orkestrarekin programa berriak prestatzen ditut, entseguetara joaten naiz, hitzaldiak prestatzen ditut...

Zure katalogoan denetariko obrak dituzu. Zein dituzu gustukoak?

Musika bokala gizakiarengandik hurbilen dagoena dela iruditzen zait. Musika bokalaren barnean, operarekin izandako esperientzia magikoa iruditzen zait. Musika eta antzerkia uztartzeak bi arte horien indarra biderkatzen du.

2006an Euskal Herrian aurkeztu zenuen *Caronte* obra. Nolako esperientzia izan zen?

Zoragarria izan zen eta noizbait Pasaian antzeztea espero dut. Hala aurreikusitua genuen, baina oraindik ezin izan dugu egin. Kike Santiago, Angel Haro edota Paco

Rabanne artistekin lan egitea, gainera, oso aberasgarria izan zen.

Preludio al amanecer aurkeztu berri duzu. Nola joan zen aurkezpena? Zein ibilbide izango du?

Aurkezpenak arrakasta handia izan zuen. Argentinan estreinatuko dute laster eta hainbat herrialdetan interpretatuko dute.

Baina, musikaz bizi daiteke?

Bai. Interpretazioaren eta pedagogiaren munduan lanpostu asko daude.

Egun, nola ikusten duzu musikaren mundua?

Itxaropentsua da egungo egoera, nire ustez. Talentu asko duten gazteak agertzen ari dira. Krisiari dagokionez, beste hainbat sektoretan izaten ari den eraginaren adinakoa ez dugu nabaritzen, oraingoz.

Pasaian jaio zinen. Egun, zein harreman duzu herriarekin?

Senideekin ditudan harremanak, noski. Horrez gain, Pasaia Musikal eskolarekin elkartruke proiektu bat dugu eskuartean eta apirillean jarriko dugu martxan. Donostiako Easo Abesbatzarekin lan bat laster kaleratuko dugu...

» DI-DA BATEAN

■ **Zer da musika zuretzat?** Espresatzeko eta bizitzeko modua.

■ **Musika mota bat.** Ona dena, den garaikoa dela ere. Hunkitzeko ahalmena duena.

■ **Obra bat.** Ezingo nuke bakarrik izendatu: Beethovenen sinfoniak, Brahmsenak, Ligetiren obra sinfonikoak (*Atmospheres*, esaterako), Pucciniaren operak...

■ **Konpositore bat.** Alfred Schinittke.

■ **Orkestra zuzendari bat.** Seergiu Celibidache.

■ **Pasaia.** Nire etxea.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA